

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA				Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	NATURA ZIENTZIAK				DATA	2022-2023
MAILA				4. MAILA		
1	ARLOAREN GUTXIENeko HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA					

- Hainbat informazio-iturri eta baliabide erabiliz animaliak eta landareak dagozkien ingurumenean identifikatu eta sailkatzen ditu irizpide zientifikoei jarraituz, bere inguruko izaki bizidunak zaintzeko eta kontserbatzeko jokabide aktiboa agertuz.
- Elikadura eta higiene-ohiturak, jarduera fisikoak eta aisiaren erabilera jakin batzuk identifikatzea, horiek osasunean eta norberaren garapenean dituzten ondorioak ezagutzeko, autonomia eta jokabide kritikoa azalduz.
- Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta, ondasun edo zerbitzu batek izandako prozesua aztertzea, sortzen denetik erabili edo kontsumitzen den arte, baliabide naturalen erabilerak dituen abantailak eta desabantailak ezagutzeko, eta hauen erabilera desegokiak dituen ondorio larriez ohartarazteko.
- Planetako energia-iturriak eta horiek lortzeko prozedura eta makinak identifikatzea, energiaren erabilera praktikoaren adibideak jartzea, aurrezteko neurriak proposatuz, erabilera arduratsua aintzat hartzeko.
- Objektu eta makinaren osagai nagusiak eta horietako bakoitzaren funtzioak aztertzea; objekturen bat egiteko prozesu erraz bat planifikatzeko eta egiteko, betiere talde-lanean lankidetzajarrera izanda, tresnak era egokian erabili eta zainduta, eta segurtasun-neurriak errespetatuta.
- Elkarrizketa eta gatazkak gainditzeko bideak bultzatuko dituzten jarrerak garatzea, besteen iritzia errespetatuz, hitz egiteko txandak itzaronez eta norberaren ekimena agertuz, taldeko lanean parte hartzen jakiteko.
- Auzoko, herriko tradizioak eta joko tipikoak ezagutzea, jakin-mina eta interesa erakutsiz, norberaren ondare kulturala, familiaren historia, etab. jakiteko.
- Denbora planifikatzea, aisialdiari eta ikasketari eman beharreko tarteak kontutan hartuz, bakoitzaren zereginak antolatuz.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA LH 4		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Giza gorputzaren bizi funtzioak. - Nutrizio funtzioa: digestio, arnas, zirkulazio eta iraitz aparatuak. - Ugalketa funtzioa. - Osasuna eta elikadura - Dieta orekatua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Animalia omogabeen sailkapena eta ezaugarriak. - Landareen ugalketa funtzioa: polinizazioa, fruituak, haziak. - Euskal Herriko zuhaitzak eta sendabelarrak. - Euskal Herriko ekosistemak: larrea, urmaela, basoa, 	<ul style="list-style-type: none"> - Materiaren propietateak, egoerak eta aldaketak. - Energia: formak eta iturriak. - Energiaren erabilera eta aurrezteak. - Argia: ezaugarriak eta iturriak. - Argiak gorputzetan



itsasertza.

duen portaera.
- Soinua: ezaugarriak
- Grabitatea eta magnetismoa.

3

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Datuak bilduz eta neurketa-aparatuak erabiliz, inguru fisikoko zenbait faktoreren (erliebea, lurzorua, klima, landaretza) eta bizimodu eta portaeren arteko harremanak hauteman eta azaltzea, eta oreka ekologikoa errespetatzeko jarrerak bereganatzea balioestea.
- Animaliak eta landareak identifikatu eta sailkatzen ditu irizpide zientifikoei jarraituz.
- Elikadura- eta higiene-ohiturak, jarduera fisikoak eta aisiaren erabilera jakin batzuk identifikatzea, eta horiek osasunean eta norberaren garapenean dituzten ondorioak modu kritikoan azaltzea.
- Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta, baliabide naturalen erabilera garrantzitsuenak identifikatzea eta abantailak eta desabantailak aipatzea, eta ondasun edo zerbitzu batek izandako prozesua aztertzea, sortzen denetik erabili edo kontsumitzen den arte.
- Planetako energia-iturriak eta horiek lortzeko prozedura eta makinak identifikatzea, energiaren erabilera praktikoaren adibideak jartzea, erabilera arduratsua aintzat hartzea eta aurrezteko neurriak proposatzea.
- Objektu eta makinaren osagai nagusiak eta horietako bakoitzaren funtzioak aztertzea; objekturen bat egiteko prozesu erraz bat planifikatzea eta egitea, betiere talde-lanean lankidetzaz-jarrera izanda, tresnak era egokian erabili eta zainduta, eta segurtasun-neurriak errespetatuta.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Orokorrean kontutan izango ditugun irizpideak hauek izango dira:

- **Edukiak: %60**
- **Prozedurak eta jarrera: %40**
 - Etxeko lanak ondo egitea eta ikastea.
 - Garbitasuna eta materialaren zaintza.
 - Egunerokoan parte hartzea eta besteak errespetatzea..
 - Irakasgaiarenganako jarrera.
 - Agendaren erabilera egokia.
 - Euskararen erabilera.